



- ARROPA NANOTEKNOLOGIKOA -

Guk, Aitana Salasek, Aitana Elorzak, Mikel Andoni Elordietak eta Xabier Quincocesek, Olabide Ikastolako lau ikaslek, sortutako enpresa da MAXA. Enpresaren ideia nagusia produktu berritzaile bat sortzea izan da, osasun-arazoren bat duten pertsonei laguntza emateko edo bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Gure proiektuaren ideia izan da arropa-enpresa bat sortzea, nanoteknologiaren bidez odoleko azukre-maila, gorputzeko tenperatura, pulsazioak, eguneroko jarduera etab. ezagutzeko gai dena. Kolesterola edo hipogluzemia bezalako arazoak izaten dituzten pertsonei laguntzeko, posible da arropa adimendunak gure aplikazioan jasotzen dituen datu guztien erregistro bat gordetzea, horren jarraipena egiten laguntzeko.

Enpresa online hasiko da, guk sortutako webgune batekin, non bezeroek gure produktuak erosi ahal izango dituzten. Erositako gauzak 8-12 asteko epean bidaliko dira, enpresaren hasiera baita. Gure MAXA lantaldeari dagokionez, langile-talde moderatu batekin eta material-hornitzaileekin batera, produktua ekoitziko dugu, ondoren erosleari bidaltzeko.

Gure enpresa sustatzeko modurik onena sare sozialen bidez egitea adostu dugu. Prozesu osoa aurreikusten dugun bezala badoa eta beharrezko baliabideak baditugu, denda fisikoak irekitzeko aukera planteatuko genuke, bezeroarengana errazago iristeko. Gure enpresa haziko dugu bezeroen ekarpenen eta guztion indarraren bidez.

Azkenik, egindako antolakuntzagatik gure proiektua eta produktua aurrera egiteko taldeko esfortsua jarriko dugu, azkenean bezeroen nahiak asetzeko emaitzarekin.

MAXA taltea.

HITZEGIN GUREKIN

(04) 298 3985 2092

+34 987 34 19 54

info@maxarropak.com